EUROPE DIRECT Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BizkaiaGara
Eginez izan · Tiempo de acción

# AÑO EUROPEO DE LA JUVENTUD 2022

La Comisión Europea ha designado 2022 como "Año Europeo de la Juventud", con el objetivo de empoderar a la juventud, animarla y enriquecerla con nuevas oportunidades y formas de participar y asumir un papel de ciudadanía activa en la sociedad. Esta idea se puso de manifiesto en el discurso sobre el estado de la Unión 2021 de la presidenta von der Leyen, quien destacó la necesidad de que 2022 fuera un año dedicado a quienes han ayudado a los demás.

En este sentido, la Comisión coordina, a lo largo de 2022, una serie de actividades e iniciativas en estrecho contacto con el Parlamento Europeo, los Estados miembros, las autoridades regionales y locales, las organizaciones juveniles y los propios jóvenes europeos para darles voz, puesto que la UE considera que merecen estar en el centro y ser escuchados por quienes toman las decisiones. Así, estos se beneficiarán de muchas oportunidades para adquirir conocimientos, habilidades y competencias para su desarrollo profesional, y para fortalecer su compromiso cívico para dar forma al futuro de Europa.

Los principales objetivos del Año Europeo de la Juventud son:

1. Renovar las perspectivas positivas para los jóvenes, con especial atención a los efectos negativos que la pandemia tuvo







sobre las personas jóvenes, destacando al mismo tiempo cómo las transiciones ecológica y digital y otras políticas de la Unión ofrecen oportunidades para las personas jóvenes y para la sociedad en general.

2. Apoyar a las persona jóvenes, incluso a través del trabajo juvenil, especialmente a quienes tienen menos oportunidades, de entornos desfavorecidos y diversos o pertenecientes a grupos vulnerables y marginados, para que adquieran conocimientos y competencias relevantes y así se conviertan en ciudadanos activos y comprometidos, inspirados por un sentido de pertenencia europeo.

3. Fomentar en las personas jóvenes la adquisición de una mejor comprensión y promover activamente las diversas oportunidades disponibles, ya sea a nivel de la UE, nacional, regional o local, para apoyar su desarrollo personal, social, económico y profesional.

4. Integrar la política de juventud en todos los ámbitos políticos pertinentes de la Unión en consonancia con la Estrategia de la UE para la Juventud 2019-2027 para fomentar que se incorpore una perspectiva de juventud en la elaboración de políticas a todos los niveles.

En el marco del Año Europeo de la Juventud, los programas de la Unión Europea dedicados a la juventud, como Erasmus+ y el Cuerpo Europeo de Solidaridad, desempeñarán un papel central en la implementación de las actividades de esta celebración.

Una de las iniciativas más destacadas de este Año Europeo es la plataforma digital 3D, www.youthvoices.eu, a través de la cual, la juventud europea puede grabar su mensaje personal, dejando constancia de su visión de Europa, cómo de cerca o lejos se sienten de las políticas comunitarias de empleo, además de otros temas como la movilidad o el clima.

Otra de las iniciativas es ALMA, para ayudar a quienes no están en el empleo, la educación o la formación a encontrar su camino hacia el mercado laboral combinando el apoyo a la educación, la formación profesional o el empleo en su país de origen con una colocación laboral en otro país de la UE.

Se puede participar en este Año Europeo,  subiendo a la plataforma habilitada en el [Portal Europeo de la  Juventud](#) aquellas actividades que cumplan con los objetivos  clave establecidos por la Comisión.

Ya son más de 3.100 actividades las que se han registrado, que brindan oportunidades a los jóvenes y que están relacionadas con el compromiso cívico, además de con conocer a las personas, descubrir otras culturas, mejorar las perspectivas laborales o compartir ideas, entre otras.

A través de un sencillo [formulario](#), las organizaciones pueden cumplimentar los datos correspondientes de las actividades que quieran llevar a cabo, prestando especial atención a varios campos importantes como el lugar de celebración, el formato de realización o el enlace con el que registrarse en la actividad, entre otros.

El impacto y el legado de todas las actividades y oportunidades de participación deben ser duraderos, más allá de 2022.

El Año también está vinculado a la Conferencia sobre el futuro de Europa, donde los jóvenes juegan un papel fundamental.




Más información:

[Año Europeo de la Juventud (web oficial)](#)

[Comunicado de prensa de la Comisión Europea](#)

EUROPE DIRECT Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BizkaiaGara
Egitez izan · Tiempo de acción

# GAZTERIAREN EUROPAKO URTEA 2022




Europako Batzordeak 2022a “Gazteriaren Europako Urte” izendatu du, gazteak ahalduntzeko, animatzeko eta aberasteko gizartean parte hartzeko modu eta aukera berriekin eta herritar aktiboen rola har dezaten. Ideia hori agerian geratu zen von der Leyen presidentearen 2021eko Batasunaren egoerari buruzko hitzaldian. Presidenteak nabarmendu zuen 2022ak izan behar zuela besteei lagundu dietenei eskainitako urtea.

Alde horretatik, Batzordeak hainbat jarduera eta ekimen koordinatzen ditu 2022an, Europako Parlamentuarekin, estatu kideekin, eskualdeetako eta tokiko agintariekin, gazte-erakundeekin eta Europako gazteekin beraiekin harreman estuan, haiei ahotsa emateko, EBk uste baitu erdigunean egotea eta erabakiak hartzen dituztenek entzutea merezi dutela. Horrela, aukera asko izango dituzte beren garapen profesionalerako ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko, eta Europaren etorkizunari forma emateko konpromiso zibikoa indartzeko.

Hona hemen Gazteriaren Europako Urtearen helburu nagusiak:

1. Gazteentzako aurreikuspen positiboak berritzea, pandemiak gazteengan izan zituen ondorio negatiboei arreta berezia jarriz, eta, aldi berean, trantsizio ekologiko eta digitalek eta Batasunaren beste politika batzuek gazteentzat eta, oro har, gizartearentzat aukerak eskaintzen dituztela nabarmenduz.

**AÑO EUROPEO DE LA JUVENTUD**

2. Gazteei laguntzea, baita gazteen lanaren bidez ere, batez ere aukera gutxien dutenei, ingurune behartsu eta askotariko pertsonei edo talde ahul eta baztertuetako pertsonei, ezagutza eta gaitasun garrantzitsuak eskura ditzaten eta, horrela, herritar aktibo eta konprometitu bihur daitezen, Europako kide izatearen zentzuan oinarrituta.

3. Gazteek hobeto uler dezaten sustatzea, eta eskura dituzten aukerak aktiboki sustatzea, bai EBn, bai estatuan, bai eskualdean, bai tokian tokian, haien garapen pertsonala, soziala, ekonomikoa eta profesionala bultzatzeko.

4. Gazte-politika Batasunaren eremu politiko egoki guztietan txertatzea, EBren 2019-2027 Gazteriarentzako Estrategiarekin bat etorriz, maila guztietako politiken prestaketan gazte-ikuspegia txerta dadin sustatzeko.

Gazteen Europako Urtearen esparruan, Europar Batasunak gazteei zuzendutako programek, hala nola Erasmus+ eta Elkartasunerako Europako Kidegoak, funtsezko zeregina izango dute ospakizun horretako jarduerak ezartzeko orduan.

Europako Urte honetako ekimenik nabarmenetako bat 3D plataforma digitala da (www.youthvoices.eu). Plataforma horren bidez, Europako gazteek beren mezu pertsonala graba dezakete, Europari buruz duten ikuspegia, zenbateraino gertu edo urrun sentitzen diren Erkidegoko enplegu-politikez, bai eta beste gai batzuez ere, hala nola mugikortasunaz edo klimaz.

Beste ekimenetako bat ALMA da, enpleguan, hezkuntzan edo prestakuntzan ez daudenei lan-merkaturako bidea aurkitzen laguntzeko, beren jatorrizko herrialdean hezkuntzarako, lanbide-heziketarako edo enplegurako ematen zaien laguntza eta EBko beste herrialde batean lan egitea konbinatuz.

Erasmus+
Bizitzak aberasten, buruak zabaltzen.

Europako Urte honetan parte hartzeko, Gazteriaren Europako Atarian gaitutako plataformara igo behar dira Batzordeak ezarritako funtsezko helburuak betetzen dituzten jarduerak.

Dagoeneko 3.100 jarduera baino gehiago erregistratu dira, gazteei aukerak ematen dizkietenak eta konpromiso zibikoarekin lotuta daudenak, pertsonak ezagutzeaz, beste kultura batzuk ezagutzeaz, lan-aukerak hobetzeaz edo ideiak partekatzeaz gain, besteak beste.

Inprimaki sinple baten bidez, erakundeek egin nahi dituzten jarduerei buruzko datuak bete ditzakete, eta arreta berezia jarri behar dute hainbat eremu garrantzitsutan, hala nola non egingo den, zein formatutan egingo den edo jardueran erregistratzeko esteka, besteak beste.

Parte hartzeko aukera eta jarduera guztien inpaktuak eta ondareak iraunkorrak izan behar dute, 2022tik aurrera.

Urtea Europaren etorkizunari buruzko Konferentziarekin ere lotuta dago; izan ere, Konferentzian gazteek funtsezko rola dute.

Informazio gehiago:

Gazteriaren Europako Urtea (web ofiziala)

Europako Batzordearen prentsa-komunikazioa

